

## ADMINISTRAZIO KONTRATAZIOA

ESPEDIENTE ZK.: 02/10

### XEDEA:

GUFE-REN LURGORRI EGUNeko ZENTROKO JANTOKI ZERBITZUA EMATEA, 2010EKO MAIATZAREN 1ETIK ABENDUAREN 31RA.

### BEHIN-BEHINEKO ADJUDIKAZIOA

### EBAZPENA:

GUFEko kudeatzaile jaunaren **847. Ebazpena**, 2010eko martxoaren 26koa; horren bidez, 2010eko maiatzaren 1etik abenduaren 31ra, GUFE-ren Lurgorri eguneko zentroko jantoki zerbitzua emateko kontratua behin-behinean adjudikatu da.

### BEHIN-BEHINEKO ADJUDIKATARIOAK:

- SOZIETATEAREN IZENA:  
**GASTRONOMÍA VASCA, S.A.**
- ADJUDIKAZIOAREN GEHIENeko ZENBATEKO ZENBATETSIA -BEZ-A KENDUTA-:  
**20.635,25.-€.**

### WEB-EAN ARGITARATUTAKO EGUNA:

2010-03-26a

### ESKATZEN DIREN AGIRIAK:

Kontratu honen preskripzio teknikoen pleguan eta administrazio klausula berezien pleguan eta Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legeko 135.artikuluari aurrez ikusitakoarekin bat etorrira, jakinarazten dizugu ondoren zehazten den dokumentazioa egiaztatzeko hamabost (15) egun baliorduneko epea duzula, gehienez, iragarki hau [www.ifas.bizkaia.net/contratospublicos](http://www.ifas.bizkaia.net/contratospublicos) web orriari argitaratu eta biharamunetik zenbatuta:

- Behin betiko bermea eratu dela egiaztatzen duen dokumentazioa (administrazio klausula berezien pleguko 4. edo 5. eranskinak). Hona hemen berme horren zenbatekoa: **1.100,00.-€.**
- Zerga betebeharrak ordainduta daukazula egiaztatzeko, foru ogasunek eta/edo hala denean, Zerga Administrazioeko Estatu Agentziak emandako ziurtagiria.
- Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean dituzula egiaztatzen duen ziurtagiri positiboa edo, bestela, dagokion mutualitateko alta.
- Ekonomi Jardueren gaineko Zergari dagokion uneko ekitaldiko alta-agiria edo azken ordainagiria, eta, hori osatzeko, aipatu zergaren matrikulan baja emanda ez zaudela ziurtatzeko erantzukizunpeko adierazpena (administrazio klausula berezien pleguko 6. eranskina). Zerga hori ordaintzetik salbuetsita bazaude, aipatu zergaren matrikulan baja emanda ez zaudela ziurtatzeko erantzukizunpeko adierazpena, eta salbuesteko arrazoia adieraziko duzu (administrazio klausula berezien pleguko 6. eranskina).
- Erantzukizun zibileko aseguruaren polizaren kopia eta kontratuaren kontratazio-primaren ordainagiria —aseguru horrek alde orokorra, patronala eta amaitutako lanak estali behar ditu—, preskripzio teknikoen pleguan ezarritakoaren arabera.

KUDEAKETAKO IDAZKARITZAKO BURUA



Sin.: José Luis Camarón Bonacasa.